



## **2023RAKO ARAUDI PLANA**

39/2015 Legeko 132. artikuluan jasotakoa betez, 2023. urtean udal honek onartu edo aldatu nahi dituen araudi edota ordenantzak honakoak direla adierazten da.

### **SEMINARIXOAREN ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZA**

Ordenantza hau aurreikusten zen 2019ko planean, baina hainbat arrazoi medio ez da oraindik onartu.

Seminarixoa kultur aretoa eta horren erabilera arautzeko beharrezkoa ikusten denez ordenantza bat idaztea, zehaztuta uzteko zertarako eta zein baldintzarekin erabili ahal izango den, ordenantza hori egitea aurreikusten da

### **KIROL ZERBITZUKO ARAUDIA**

Igarotako urte hauetan udala jabetuta arautegia zahartuta geratu dela eta ez diola tresnarik eskaintzen gaur egun bizi ditugun hainbat egoerei aurre egiteko, jadanik iazko araudi planean sartu zen araudi berria prestatzea eta aurretiazko kontsulta egin zen eta zirriborroa prestatu, baina oraindik aztertzen ari da udala. Beraz, araudi berria prestatzen bukatzea aurreikusten da.

### **TERRAZAK JARTZEKO BAIMENAK ARAUTZEKO ARAUDIA**

Ordenantza berria prestatzeko lanetan ari da udala, parte-hartze prozesua amaituta.

### **EUSKARA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZEN ARAUDIA**

Euskara zerbitzuak dirulaguntzak zeintzuk jaso ditzaketen eta langabetuak dirulaguntza jasotzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa argitzeko beharra ikusten du. Beraz, hori argituz araudian aldaketa bat egitea pentsatzen zen. Orain Euskara Zerbitzuak ematen dituen beste dirulaguntza batzuk ordenantza bidez arautzea komenigarria ikusi da eta denak arautzen saiatuko da udala. Beste dirulaguntzak dira:

- Eskolei emateko: eskolek antolatutako euskara errefortzuetarako, bertso eskola, antzerki eskola.
- Herritarrentzat, berriz, idazle eskolan parte hartzen dutenentzako eta begirale titulua euskaraz atera dutenentzako.

### **ANIMALIEN BABESERAKO UDAL ORDENANTZA**

Igarotako urte hauetan udala jabetu da arautegiak aldaketa batzuk behar dituela, eta horregatik aldatzea planteatzen zen. 2022an 9/2022 LEGEA, ekainaren 30ekoa, etxeko animaliak babesteari buruzkoa onartu da (aldizkari ofizialean 2022ko abuztuaren 17an



argitaratu da) eta udalei urte bateko epea ematen die ordenantza lege horretara egokitzeko. Eta beraz, ordenantza berri bat onartzeko beharra ikusten da.

### **HILERRIETAKO ORDENANTZA**

Beharrezkoa ikusten da udalerrian dauden hilerri desberdinen zerbitzua arautzea eta bertan dauden hilobiratze mota desberdinak dokumentu bakar batean jartzea.

### **AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZUGUNEA ARAUTZEKO ORDENANTZA**

Beharrezkoa ikusten da okupazioaren denborari dagokionean eta bizitoki itinerante ezberdinei (karabana, furgoneta..) dagokienean salbuespenak emateko aukera izatea udalak.

### **ESPAZIO PUBLIKOEN GARBIKETAREN ETA GARBIKETA ARAUAK JASOKO DUEN UDAL ORDENANTZA**

Espazio publikoen garbiketa helburu izanda horren inguruko arauak, garbitzeko arduradunak eta jokabideak arautu nahi dira.

### **HILETA ZIBILEN ORDENANTZA**

Udal gobernuak ordenantza hori aldatu nahi du gaur egungo beharretarako egokitzeko. Udala aldaketa horren zirriborroa prestatzen ari da.

Begara, 2023ko apirilaren 13a